

DE BELLO PERSICO

I

Milaka gizon erotuen oihuak opari dizkizut
urrikalmenik ez dutenei orroaka,
hezurren gain pilaturik hildakoen hezurak,
urratuak giharreak, hilotza odola.

Milaka sai asetuen hegada opari dizut
otordu apokaliptikoaren hondakinak edonon,
desertuko hareetan ilargiak isladatzeko
alperrik aurkitu
nahi izan duen begizuloetako ninien hutsala.



Milaka haur umezurtzen izua opari dizut
eta erauzi zizkieten bularretako esne tanta;
gerra aurretik zeinek jantzi zuen ahazturik
daukan landa kiskalgarrietako oihala.

Milaka ohe etsituen bakardadea opari dizut
hautsia maitale batekiko ametsa;
gauaren horma amaigabeei begira
eta iluntasun bakoitzaren ondoan heriotza.

II

Bart desertuan
ilargi erdiaren amorrua
jasan zuen gauak
bart desertuan.

Irratian negarrez ziharduen
gauero bezala
saxoak,
malenkonia larria alaitu nahiz
gauero bezala
Wynton Marsalisen turutak,
gudu luzea amaituko duen
deiarene zain tonuera aldatzeko
bata eta bestea.



Estandak harrapatu ditu
gizonak,
leherketaren delirioak
horma erorien, haragi errearen,
bizkar hezur hautsien,
bolbora odoleztatuaren
hauts, su eta usainak.

Saxoak eta turutak bakarrik
diraute, mututuago,
hondakinen azpian,
purpura gorri epelez bustia
New Orleanseko doinua.

III

Oker ote nintzen
xoria kaiolatu zuen burnia
deuseztatua izango zela itxaroterakoan?

Oker ote nintzen
itsasoak, bota dizkioten bonbak
okaratuko zituela desiatzerakoan?

Oker ote nintzen
Jainkoak elefante sarraskituaren orroa
entzungo zuela amesterakoan?

Oker ote nintzen
amodio, barkamen eta ontasunaren
ohean etzango ginela oihukatzerakoan?

Oker ote nintzen
europar eta amerikar altzairuzko jainkoak
etsipenez herdoituko zirela irrikitzerakoan?

Oker ote nintzen
izarren gaintetik dantza egiteko lurrari
su eman behar diogula baieztatzerakoan?

Oker ote nintzen, oker? ■

